

EMANTZIPAZIORA BIZIKLETAN



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

New York, 1851. Elizabeth Smith Miller emakumeen eskubideen aldeko ekintzaileak bere ustez arrazionalagoa zen janzkera erabiltzen hasi zen: orkatiletan edo belaunetan biltzen ziren galtza zabalak eta gaintek soineko eta gona laburra. Amelia Bloomer ekintzailea berehala hasi zen horrela janzten eta joera *The Lily* emakumeentzako aldizkarian bultzatzen. Horregatik, galtza horiei *bloomers* esan zitzaizkien handik aurrera. Baina Bloomerrek berak moda hori 1859an baztertu zuen, merinakea asmatu ondoren, haren beharrik ez omen zegoelako.

Ordurako belozipedoa asmatuta zegoen, baina tramankulu garestia eta gidatzen zaila zen. Belle Époque hasieran, 1870eko hamarkadan, bizikleten gorpulen tamaina berdindu zen, pedalak erantsi zizkioten eta prezioek behera egin zuten. Emakume batzuk ere animatu ziren horretan; leku batetik bestera askatasunez eta azkar joateko aukera zuten bat-batean.

Mehatxu berri hari aurre egiteko, medikuek berehala nabarmendu zuten bizikletan ibiltzea oso kaltegarria zela emakumeentzat: antzutasuna eta nerbioetako arazoak eragiten omen zizkien. Eta neurri batean egia zen emakumeei, kortse estu eta soineko astun haiekin, bizikletan ibiltzeak ez ziela mesederik egiten. Arazoa jantzietan zegoenez eta ez bizikletan, *bloomers* galtzak erabiltzen hasita konpondu zuten.

Orduan, Frantziako irakasleei eskolaria *bloomers*ak jantzita joatea debekatu zieten, Londresen Emma Eades-i harriak botatzen zizkioten bizikletan irteten zenean, Lady Haberton-i ez zitoten kafetegietan sartzen uzten bizikleta kanpoan utzi eta zerbait edateko asmoz hurbiltzen zenean...

Jarrera horiek nabarmen aldatu ziren mendea amaitu baino lehen. 1894an Annie "Londonderry" Kopchovsky ez zen txirrindularia, ezta emakumeen eskubideen aldeko ekintzailea ere. Baina bizigonezko entzun omen zituen esaten emakumeentzat ezinezkoa zela bizikletan munduari bira ematea, eta desafioa eduki zuen. Bostonetik irteten eta 15 hilabetera itzuli zen abiapuntura, emakumeen eskubideen bultzatzaile eraginkorrenetakoa bihurtuta. 1891ko uztailaren *Chicago Tribune* egunkariko zutabe batek hala zioen: "Lehen uste nuen emakume batek egin zezakeen gauzarik okerrenera erretzea zela, baina iritzia aldatu dut. Inoiz ikusi dudana gauzarik okerrenera da emakume bat bizikletan ibiltzen". Anniek munduari bira eman ondoren, ordea, halaxe deskribatu zuen balentria *The New York World*-ek: "Emakume batek inoiz egin duen bidaiarik harrigarriena".

Hurrengo urtean, 1896an, Maria E. Ward-ek *Bicycling for Ladies* gida praktikoa argitaratu zuen. Bizikletan ibiltzen, aukera egokiena erosten eta ma-



THE GRAPHIC

Elliman igurtziak egiteko ukenduaren 1897ko iragarkia, emakume txirrindulariekiko jarrera urte gutxitan nola aldatu zen erakusten duena.

txurak konpontzen irakasten zuen gida hark eta, hala, handik aurrera emakume txirrindulariek ez zuten gizonezkoen beharrik izango. Urte berean Susan B. Anthony sufragista ezagunak garbi adierazi zuen bizikletaz zuen iritzia: "Munduan beste ezerk baino gehiago egin du emakumeak emantzipatzeko". ■



EA / DICE

Emakumeak, bideo-jokoak eta zehaztasuna

Urrian Battlefield gerrako bideo-joko sortaren bosgarren zatia aterako da eta berriki bertsio berriaren trailerra jarri dute ikusgai. II. Mundu Gerran girotutako jokoan, emakumeak ageri dira frontean borrokan eta horrek hainbat jokalariren haserrea piztu du, zehaztasun historikoa aitzakia. Bada, gutxi izan arren (trailerrean bezala), emakume

batzuk frontean ere aritu ziren. Gainera, nahiz eta girotze historikoari erreparatu, Battlefield jokoetan erritmo biziari lehentasuna eman izan zaio eta, adibidez, armak garai hartakoak baino askoz azkarragoak dira jokoan. Baina emakumeak ikusteak esperientzia zapuzten dieten jokalaria haiei horrek, itxuraz, ez die errealismorik kentzen. ■